Irailaren 26an emango diogu hasiera Eskolari. Bertan aurkeztuko dizuegu 2023-24 ikasturteko programazioa. Horretarako Virginia Imaz izango dugu gurekin, AKELARRE izeneko ikuskizun berriarekin. Ez galdu ikusteko aukera!

Hasten ari garen abentura honetan zuen parte hartzea eta babesa espero ditugu.

# 2023-2024ko Laudioko LAIAren aurkezpena

## Antzerkia: AKELARRE



Clown antzerki parodia, gazte eta helduei zuzendua. Sorgin izateko ikasten ari da Pauxa, eta Akelarre inprobisatu batean parte hartzera gonbidatuko ditu ikusleak. Zerikusirik ez kontatu digutenarekin. Sorginak pertsonak dira, eta pertsonekin gertatzen den bezala, denetarik dago: onak eta gaiztoak, eskuzabalak eta zekenak, sozialak eta antisozialak. Baina sorginak zaharrak eta jakintsuak dira beti, eta antzinako ezagutzak gordetzen dituzte. Gizonik gabe bizitzen ikasi duten edo hala erabaki duten emakumeak dira. Ikusleak bere gogoeta zoroen konplize eta lekuko gisa hartuta, feminizidio historikoari eta egungoari eta sorgin-ehizari buruzko kezkak partekatuko ditu, sorginen estereotipoaren berrikuspena eginez; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria etengabea ezkutatzen du pertsonaiaren arinkeriak eta hutsalkeriak. Kantu bat ere bada, zahartzaro ederrari eskainia. Bizitzan eta eszenatokian ahalduntzeko ekintza, ez batean ez bestean nekez onartzen baitira emakume zaharrak, jakintsuak eta genero-aginduekiko disidenteak.

Ikuskizun honetan, beste behin ere, Virginia Imazek umorez eta samurtasunez aurkezten dizkigu, clown jokoari esker, begizkoa, deabruarekin tratua egitea, sorginkeriak, sorgin-ehiza, etab. Proposamen ludikoa da, desparekotasuna eta indarkeria erreferente gisa hartzen dituena. Eta, Oihulari Klown-en sorkuntza guztietan ohikoa denez, genero-ikuspegitik egina.

| | |
|---|---|
| **Antzezlea:** | **Virginia Imaz Quijera**, Oihulari klown |
| **Data eta ordua:** | **Irailak 26, 2023**<br>Asteartea, 18:30 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + :** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Bakardadeak eskola



Elkar topatzeko eta ikasteko gune bat da. Bertan, ongizatearekin eta lan emozionalarekin lotutako saio dinamikoak eta ikastaro laburrak garatzen ditugu. Laudioko udalerriko bakardadeari buruzko isiltasuna hausten dugu, eta egiten ditugun jardueren bidez gai tabuei buruzko eztabaida zabaltzen dugu (zaurgarritasuna, intimitatea, arbuioarekiko eta gauza ezezagunekiko beldurra eta horiei lotutakoak). Izan ere, gai horiek indibidualki hausnartzera ohituta gaude, baina ez ditugu taldean partekatzen. Bakardadearen ideia eraldatzea da gure erronka, haren inguruko estigma negatiboa eraistea eta espazio bat sortzea jendartearentzako ikusezina den sentimendu hau normalizatzeko.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Beatriz Jiménez**, 3D social movement, kontsultore sozial eta integrala |
| **Data eta ordua:** | **Hasiera irailak 12, 2023**<br>Asteartea, 17:00-19:00 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: Biodantza



Gorputzean eta psikologian esku hartzeko teknika bat da. Pertsona bakoitzaren potentzialtasuna garatzen du gorputzaren eta mugimenduaren bidez. Alderdi osasungarria landuko dugu, gure bizitzeko eta sortzeko gaitasunak eta gaitasun afektiboak indartuz. Gorputz-adierazpenaren bidez gure gaitasun sozialak hobetzen ditugu, eta barrutik birsortzen laguntzen digu. Biodantza beste teknika batzuetatik bereizten da giro afektiboa sortzen duelako, taldean balio terapeutikoa duena, autoestimua hobetzen duena eta harremanak indartzen dituena.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Begotxu Arenal**, Biodantza trebatzailea |
| **Data eta ordua:** | **Irailak 19, 26 eta urriak 3 eta 10, 2023**<br>Asteartea, 17:30-19:00 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: Emakumeak osasunaren alde





Ondoez psikologikoa medikalizatzeko joera dago, baina, berez, estrategia psikologikoak erabil daitezke ongizatea sortzeko. Emakumeei zuzendutako talde-espazio honetan elkarrekin landuko ditugu egunerokotasunak eragiten dizkigun ondoezak, antsietatea eragiten diguten egoerak eta horien arrazoiak.

Talde-babes psikologikorako gune bat sortuko dugu, gelditzeko eta depresio-sentimenduak eragiten dituzten egoera emozionalei buruz hausnartzeko, eta, horien bidez, gure barne-munduarekin konektatzeko, eta adimen emozionala eta norbere barruko eta pertsonen arteko ongizatea sustatzeko.

Parte-hartzaileei esperientzia praktiko bat eskaintzea da lantegiaren helburua, emozioen eta bizipenen bidez hurbiltzeko gure identitate femeninoa definitzen duen inkontziente kolektiboaren inpregnazioak eta esperientziek sortutako korapilo emozionaletara.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Maria Angeles Becerro**, mediku psikoterapeuta eta psikodramatista, osasun mentalean trebatua |
| **Data eta ordua:** | **Hasiera irailak 26, 2023**<br>10 saio<br>Asteartea, 10:00-13:00 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Laudioko Udaleko adikzio zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# “Lolaren bizikleta” album ilustratuaren aurkezpena



*“Gau batean, ekaitza kanpoan, hautsi egin da Lolaren bizikleta. Baina Lola iaioa eta irudimen handikoa da, eta egun gutxiren buruan konpondu du bizikleta. Txirrina baino ez zaio falta. Itsasoko ur azpian, bizikletak txirrina jo du, Lolari deika. Biek batera, amarekin mintzatzeko modua aurkitu dute: ez dute osaba itzultzerik nahi.”*

*Lolaren bizikleta* istorioak erresilientziarako baliabide propio eta kolektiboekin lotzen gaitu. Erasoren bat gertatuz gero, haurrak horri buruz hitz egitera animatzen ditu, eta helduak, berriz, entzutera eta babestera. Adin guztietako irakurleentzako album ilustratua da, sexu-abusuen eta -indarkeriaren aurrean ateak zabaltzen dizkiona haurrak babesteari eta haiekin hitz egiteari. Horrela definitzen dute *Lolaren bizikleta* Laia Pibernat eta Alba Barber sortzaileek.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Laia Pibernat**, biologoa eta antropologoa, osasuna eta generoan trebatua eta **Alba Barber**, gizarte hezitzailea eta antropologian doktorea |
| **Data eta ordua:** | **Urriak 4, 2023**<br>Asteazkena, 18:30 |
| **Tokia:** | Liburutegia, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + :** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Artilezko asaltoa



Urtero, 2012tik, azaroaren 25a ospatzeko, gure kaleak kolorez eta bizitzaz betetzen dituen artilezko ekintza bat egiten dugu. Ekimen honen bidez indarkeria matxistari buruz ohartarazi nahi dugu, eta biktimekiko elkartasuna adierazi. Artilearen bidez —berotasunaren eta zaintzaren sinboloa— eta koloreen bidez —alaitasunaren eta aniztasunaren adierazpena—, Laudioko emakumeen arteko babes-sareak ehuntzen ditugu sormen prozesuan zehar. Aurten, oraindik ez dugu aukeratu gure magia ehuntzeko lekua, beraz... parte hartzera eta zuen ideiak partekatzera gonbidatzen zaituztegu!

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Joas Palomares**, jostun trebatua |
| **Data eta ordua:** | **Hitzaldi laneroak: Urriak 19 eta azaroak 2 eta 16, 2023**<br>Osteguna, 18:00<br>**Artilezko asaltoa: Azaorak 24, 2023**<br>Ostirala, 10:30 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Dokumentala: *LesVisibles*




Dokumental honek LGTBI+ memoria historikoa berreskuratu nahi du. Frankismo garaian Euskadin nerabezaroa eta gaztaroa bizi izan zuten zazpi emakumeren testigantzak baliatzen ditu, lesbiana eta feminista gisa sozializatu zirenak, testuinguru errepresibo eta guztiz lesbofoboan. Hasierako mugimendu feministako kide diren emakumeak dira. Hain zuzen ere, sexu-askatasuna eta emakumeek nahi zuten sexualitatea izateko eskubidea indarrez aldarrikatu zituen mugimendukoak.

Dokumentala Aldarte-k sortu du, Lesbiana, Gay eta Transexualen Euskadiko arreta zentroak, eta LesGaiCineMad zinema jaialdian aurkeztu zen 2022an.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Aldarte,** Euskadiko gay, lesbiana eta transexualen atentzio zentroa |
| **Data eta ordua:** | **Urriak 26, 2023**<br>Osteguna, 18:30 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + :** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Antzerkia: *Feminíssimas*




Sorkuntza kolektiboa da, oinarri gisa adiskidetasuna eta forma gisa feminismoa hartzen dituena.

Kongresu Feminista bat, Vigon. Nerabezaroko hiru lagun; urteak daramatzate elkar ikusi gabe. Hiru lagun, "feminismoa" ulertzeko 3 modu oso desberdin dituztenak... Adibidez: feminismo erradikala, feminismo liberala eta *quee*r teoria.

Hori da abiapuntua Esther F. Carrodeguas, Noelia Blanco, Stephy Llaryora eta Xavier Castiñeiraren sorkuntzarako. Umore, ironia eta konplizitate dosi handiak dituen antzezlana da, adiskidetasuna probatzen duena, aztertzen dugun bitartean (komediatik) nolakoa den emakumeon elkarbizitza murgilduta gauden mundu feminista berri honetan. Barre egiteko (beste) modu bat, geure buruaz, geure inkongruentziez eta, batez ere, teoria hutsa eta eguneroko praktika bereizten dituen espazioaz. Adiskidetasunaz eta honek ideologiarekin duen harreman konplexuaz hausnartzeko espazioa (gainera). Laburbilduz: komedia beltza... eta oso morea.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **De Ste Xeito PRODUCCIONES** |
| **Data eta ordua:** | **Azaroak 23, 2023**<br>Osteguna, 19:00 |
| **Tokia:** | Kasinoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + :** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Badator AIARALDEKO BELDUR BARIK LEHIAKETARENsari-banaketaren egun handia!

**Laudion egongo gara Aiaraldeko Beldur Barik lehiaketaren 14. edizioko sari-banaketa egiteko.**

Zatoz lehiaketan parte hartu duten gazteen proiektu artistikoak ezagutzera, non bizitzeko eta harremantzeko moduak erakutsi dituzten, oinarri hartuta errespetua, berdintasuna, askatasuna, autonomia eta indarkeria matxistaren gaitzespena.

Ez ezazu bitan pentsatu, eta eman izena Beldur Barik Jarreraren jaian!

| | |
|---|---|
| **Antzezlea:** | **Pantxika Lamour**, clown |
| **Data eta ordua:** | **Azaroak 24, 2023**<br>Ostirala, 18:00 |
| **Tokia:** | Kasinoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Euskara |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + :** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# #GoraMaitasunOna

**Lantegia: Badaude bestelako moduak maitasuna bizitzeko**




Lantegi honetan harreman osasungarriak eta lotura afektibo positiboak eraikitzeko moduak landuko ditugu, autoestimua, komunikazioa eta elkarrekiko errespetua azpimarratuz. Adibideen eta jarduera parte-hartzaileen bidez, ikasleek beren kezkak eta zalantzak partekatuko dituzte, eta maitasun harremanetan arrisku-seinaleak antzematen ikasiko dute.

Gakoak emango ditugu indarkeriak prebenitzeko eta antzemateko, eta, horrez gain, emozioez, maskulinitate desberdinez, maitasunaren eredu sozialaren eraikuntzaz, jazarpenaren prebentzioaz, aniztasunaren onarpenaz eta abarrez hitz egingo dugu eta tratu onetan oinarritutako harreman-ereduak sustatuko ditugu (adiskidetasuna, norbere buruarekiko maitasuna...).

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **LA PSICOWOMAN**<br>**@lapsicowoman** |
| **Datak eta ordua:** | **Abenduak 11, 2023**<br>Astelehena, eskola ordutegian |
| **Tokia:** | Kasinoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Ikasleak |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio +:** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: Emakumeak ahalduntzeko antzerkia

Taularatu egin nahi ditugu patriarkatua, gizonezkoen nagusitasuna eta horrek gure eguneroko bizitzan dituen ondorioak, matxismoa. Iazko parte hartzaileak zein emakume berriak gonbidatu nahi ditugu parte hartzera.

Ahalduntze maila kolektiboa lortu ondoren, KULUXKA ANTZERKIA-n sortzen ari garen obra bat entseatuko dugu. Miguel Lorente Acostaren “AUTOPSIA AL MACHISMO” liburuaren egokitzapena da. “Begirada zorrotza behar da, bisturi gisa funtzionatzen duena, matxismoari normaltasun itxura ematen dion arkume-larrua apurtzeko eta agerian uzteko azpian ezkutatzen den otsoa. Izan ere, emakumeak zapaldu eta erasotzeko eta botere gehiago metatzeko, otso hori baliatu egiten da desparekotasunaz, diskriminazioaz, jazarpenaz, abusuez, sexu-erasoez eta genero-indarkeriaz.

Gaiaren indarrari eta antzerkiaren arteari esker, uste dugu eztabaidak eta hausnarketak sor daitezkeela jarduera honetan.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Kuluxka antzerki taldea**, giza eskubideen eta genero ikuspegidun antzerki kolektiboa |
| **Data eta ordua:** | **Urtarrilak 10etik maiatzera arte, 2024**<br>Asteazkenero, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: GORPUTZA, ETXEA, HIRIA II “Sentikortasun artistikotik gure espazioa diseinatzea edo sortzea”

Leku, espazio eta giro kontzeptuak landuko dira. Kolorea, espazioa bereizten duen elementu gisa. Zer egin dezakegu? Ideia-jasa. Adibideak irudikatuko dira eta koloreari eta materialei buruzko tailer bat egingo dugu; hortik aterako da Lezeaga gunean garatuko den proposamena, orain arte egindako obrak kontuan hartuta.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Izaskun Alonso Saratxaga**, EHUko Arte Ederren Fakultateko pintura eta diseinu eta sorkuntza proiektuetako irakaslea |
| **Data eta ordua:** | **Urtarrilaren 11tik martxoaren 14ra, 2024**<br>Ostehunero, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Lezeaga Aretoa, Laudio |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | LAIA Laudio<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Laudioko Berdintasun Zerbitzua<br>944 03 48 50 / laialaudio@laudio.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lankidetza feminista mundua eraldatzeko eredu berri gisa




Euskadiko GGKE koordinakundeak antolaturiko topaketa honek ikuspegi feminista duen lankidetzarako bideari buruz hausnartzeko helburua du, esparru lokala eta globala aintzat hartuta. Bide horretan, jardunaldi honetan estatu mailan zer lan egiten ari den ezagutu, eta kontzeptu hori lanean nola txertatu aztertuko da, bai eta horrek Arabako lurraldean zer inplikazio eta erronka dituen ere. Bestalde, esperientziak partekatzen jarraitu ahal izateko, topaketak informalagoa izango den espazio bat irekiko du, mokadutxo bat hartzeko goiz erdian.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Euskadiko GGKE koordinakundea** |
| **Programa:** | Hitzaldi nagusia: **Mercedes Ruiz-Giménez Aguilar**<br>Lan kolektiboa: **Clara Murguialday Martínez** |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 14, 2023**<br>Osteguna, 10:00-14:00 |
| **Tokia:** | Landederra kiroldegia, Burgelu |
| **Norentzat:** | GGKE eta herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Euskadiko GGKE koordinakundea<br>Arabako Foru Aldundia<br>Burgeluko Udala |
| **Informazio +:** | Hauurtzaindegi eta autobus zerbitzua eskaera bidez irailaren 5a baino lehen |
| **Inskripzioak:** | **Izen emateak irailaren 7a baino lehen:**<br>https://forms.gle/bb3i2EYTC1QoMumUA<br>araba@ongdeuskadi.org / 945 28 07 45<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Arabako Landa Inguruneko Emakumeen Sarearen XXIV. urteroko Topaketa




Arabako landa-eremuko emakumeen intereseko gaien inguruan trukea, hausnarketa eta ikaskuntza bultzatzeko gunea da hau. Aurtengo leloa "*Belaunaldien arteko bizikidetza solidarioa ereiten, berdintasuna eta lidergoa jasotzen*" izango da.

**Programa:**

- 9:45 Harrera eta dokumentazioa ematea
- 10:00 Ongi etorri instituzionala
- 10:30 Hitzaldia *"Envejecimiento activo desde una perspectiva feminista y sororidad entre mujeres rurales de todas las edades".* **Mónica Ramos**, antropologoa eta gerontologa feminista
- 11:15 Hitzaldia *"Convivencia intercultural en clave intergeneracional: Retos y riesgos".* **Rubén Lasheras**, irakaslea eta ikertzailea
- 12:00 Deskantsua eta hamaiketakoa
- 12:45 Taldeko dinamika eta ondorioak
- 13:30 *"Mari Lluvia"* antzerkia, **Hamaika Konpainia**

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sarea** |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 16, 2023**<br>Larunbata, 9:30-14:00 |
| **Tokia:** | Kultur etxeko areto nagusia, Bastida |
| **Norentzat:** | Emakume baserritar eta Emakumeen elkarteentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Baserritar Inguruko Emakumeen Sarea<br>Bastidako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Izen-ematea posta elektronikoaren bidez, izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa adieraziz:<br>red@mujeresruralesalaves.org / 626 38 98 65<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da

Txikitatik diren bezala bizitzeko aukera izan duen pertsona transexualen lehen belaunaldia dugu gure artean. Haien eta gazte hauen bizitza ibilbideak asko erakutsi digu transexualitateari buruz, bereziki, onartu eta den bezala maitatzeak ekartzen dituen onuren inguruan. Testuinguru egoki bat hil ala biziko aldea egin dezake pertsona hauen bizitzan. Haien familien bizipenak entzungo ditugu errealitate hau hedatu diren gezurrak alboratuz, gertutik ezagutu ahal izateko.

| | |
|---|---|
| **Hizlaria:** | **Bea Sever**, sexologoa, Naizen elkarteko familien testigantza |
| **Datak eta ordua:** | **Abenduak 14, 2023**<br>Osteguna, 18:30 |
| **Tokia:** | Ignacio Aldekoa Kultur etxea, Vitoria-Gasteiz |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | ccultura@araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Emakumeak ikusarazten dituzten proiektuak

## Arnas betean, Emakume zinegileak



*"Urpekari-igerilari batzuk gara, mundu aske batean; trebeziaz igeri egiten dugu. Itsasoa abegikorra da, berezia, erakargarria, bertan murgiltzeko gogoa sortzen duena. Itsas-azalera ateratzen garenean, aldiz, inguruaren intimitate eta oreka hori galdu egiten dugu, eta mundu oso mugitua, aktiboa, malkartsua, zaila, korapilatsua, aldakorra, bizia, txinpartatsua topatzen dugu."*

Fikzioz irudikaturiko paralelismo honek euskal emakume zinemagileak hizpide izango ditu Tentazioa Produkzioak-en eskutik estreinatuko den film-dokumentalak. Nola adierazi dituzte emakumeek zineman beren bizitza, kezkak edo indarkeriaren eta genero-estereotipoen aurrean askatasun gogoa? Nola aldatzen da ikuspuntu zinematografikoa emakume bat kameraren atzean dagoenean? Nora doa kameraren objektiboa? Azken batean, zertan aldatu da zinema euren begirada propioaren ekarpenarekin?

**Bertha Gaztelumendi Caballerok** (kazetaria eta EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedran ikerlaria) eta **Rosa Zufía Sanzek** (Komunikazio Zientzietan lizentziatua) zuzendurik elkarrizketa ezberdinak eta fikzioa uztartuko dituen lana aurkez-

tuko dute. Filmak aitzindarietatik hasi eta gaur egunera arteko Euskal Herriko emakume errealizadoreen bizipenak eta lan zinematografikoak bilduko dituen istorio bat eraiki nahi du. Gutxi dira zinemagintzan aritzea lortu duten emakumeak eta normalean gutxietsiak edo ahaztuak izan dira. Hala ere, azken hamarkada hauetan hasi dira emakumeak beren arrastoa uzten zineman, eta aztarna hori da proiektu honi ekitean bilatzen duena.

Proiektu hau Arabara helduko da eta irailetik aurrera aurkezpen ezberdinak burutuko dira. Ez ezazu galdu ikusteko aukera, webgune eta sareetan informazio gehiago argitaratuko da.

## EmariApp Historiako eta gaur egungo emakumeak ezagutarazteko jolasa da




Eguneko emakumea zein den asmatzean datza jolasak, eta horretarako, 5 pista dituzu eta minutu 1 eta 30 segundo, gehienez. Ezagutzen al dituzu emakume erreferenteak? Zientzialariak, erizainak, margolariak, astronautak, matematikariak, medikuak, idazleak, zaintzaileak, kirolariak, borrokalariak...? Jolas honen bitartez, astelehenetik ostiralera, emakume erreferente baten bizitzaren inguruko pistak irakurrita nor den asmatu beharko duzu.

Deskargatu ezazu zure mugikorrean esteka honen bidez:
https://emariapp.kalaka.eus/

# Berdintasunaren aldeko Aiaraldeko elkarteen lana

Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta antolakundeek, beren aniztasun eta esperientziarekin, hezkuntza-programak, lantegiak, jarduerak eta proiektuak antolatzen dituzte, besteak beste, genero-berdintasunaren inguruko hausnarketa kritikoa sustatzen dutenak. Arabako Foru Aldundia aliatu eta bideratzaile gisa kokatzen da, eta sustatu eta babestu egiten ditu jendartearen aurrerapenari laguntzen dioten ekimenak.

Jarraian ageri den koadroan, Aiarako Kuadrillan hainbat proiektu garatzea aurreikusten duten antolakunde guztiak topatuko dituzue:

| ENTITATEA ↓ | PROIEKTUA ↓ |
|---|---|
| **BOR-BOR FEMINISMO ELKARTEA** | *Munduko emakumeak Aiaraldean 2023.* *Feminismoa Aiaraldean Bor-Bor 2023*. Hitzaldi-zikloa, jardunaldi feministak, urtekari bat eta hainbat foro egitea |
| **AIARANDREEN TAUPADAK BATUKADA ELKARTEA** | *Taupada feministak ateratzen perkusioaren bidez.* Aiaraldeako lehenengo batukada feministaren sorrera |
| **JAKARANDA ASOCIACION CULTURAL DE PROMOCION DE LA MUJER DE LLODIO** | *Ezaguna egiten zaizu? Indarkeria matxistari aurre eginez gure istoriaren bidez.* Lantegiak |
| **ASASAM** | *BerdinLab II: Asasamen kultura, hausnarketa eta pentsaera feminista lantzen* |
| **AMPA BARRATXI**<br>**AMPA OKONDO ESKOLA**<br>**AMPA ETXAURREN**<br>**AMPA BABIO IES ZARAOBE** | Monitore, irakasle eta ikasleei zuzenduriko berdintasunaren inguruko formakuntza ezberdinak |
| **MUNDUBAT** | *Arabako Sexu Aniztasunari buruzko Kontzientzia Kritikoa eta Ekimenak sortzen, tokiko-globaletik* Ikerketa eta erakusketa |
| **AFRICANISTA MANUEL IRADIER** | *Eduk`art arte al servicio de la EpTS*. Autore afrikarrekin solasaldiak |
| **SETEM** | *Kontsumo eraldatzaile eta feministaren alde: aldaketarako botereak.* Bakarrizketa, lantegiak eta hausnarketa-prozesuak |

| | |
|---|---|
| **SOLIDARIDAD INTERNACIONAL** | *Africak emakume defendatzaileak inspiratzen ditu*<br>*0 tolerantzia: diskriminazio eta genero rolen aurrean desparekotasunak hautsiz.*<br>Lantegiak, hitzaldiak eta erakusketak |
| **WAYRA ELKARTEA** | *Ahalduntze eta hausnarketa feminista bultzatuz.*<br>Zineforumak eta lantegiak |
| **MUGARIK GABE** | *Indarkeria matxisten aurrean estrategiak sortzen*<br>Dokuforumak |
| **LUMAGORRI HAT ELKARTEA** | *Ikusguneak*. LGTBI pertsonen aurkako erasoen sentsibilizazio eta salaketa-puntua |
| **URTXINTXA ASTIALDI ESKOLA** | *Ekintza feministak burutuz Aiaraldea indartuz.*<br>Indarkeria matxistaren inguruko formakuntzak eta aisialdi feministari buruzko jardunaldia |
| **KUENTAME** | *Berdintasuna kalean bertan: berdintasuna balio sozial gisa onartzen lagunduz. Lantegiak* |
| **ALDARTE** | *LESVISIBLES: Lesbianismoaren ezagutza, memoria eta ikusgarritasuna*. Dokumentala eta erakusketa |
| **ARASKI AES** | *Erreferenteen promozioa*. Hezkuntza zentroetara bisitak |
| **SAMURRAK ANIZTASUN SUSTAPEN TALDEA** | *Miaketak Araba 2023 – Kulturartekotasunetik berdintasun eta sexu eta generoaren aniztasunaren promozioa*. Hezkuntza zentroetan lantegiak |
| **EGINAREN EGINEZ** | *Emakume jainkotiarrak*. Aniztasun funtzionala duten emakumeen inguruko sentsibilizazio kanpaina |
| **COLOMBIA EUSKADI** | *Bizikidetza sustatu komunikazioaren eta kultura-trukeen bidez.* Sare sozialetan kanpaina, lantegiak, emakumeekin topaketak, erakusketa eta bideo-dokumentala |
| **ASAMBLEA DE COOPERACION PARA LA PAZ** | *El Salvadorren berdintasuna eta genero-indarkeriarik gabeko bizitza sustatzea, COVID-19aren eragina kontuan hartuta (II. Fasea).* Argazki-erreportajea, antzerkia eta komunikazio kanpaina |